# INGURUMENA

| | GARAPENA - INGURUMENA | | |
|---|---|---|---|
| **GAIA** | **EGINDA** | **MARTXAN** | **EGITEKO** |
| Herriko mugikortasuna hobetu | • Erdiko kalea peatonalizatu da,<br>• Mugikortasuna kanpainak egin dira (bizikletan, oinez,… ibiltzearen alde)<br>• Autobusen erabilerari buruzko parte hartze bilerak egin dira Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. | • Oraindik ez da lortu Eskoriatzako ikasleak Almenera oinez joatea, baina Udala eta ikastetxea gai hau elkarlanean lantzen ari dira | • Autobus zerbitzuaren funtzionamendua hobetu behar da. |
| Errekak garbitzea | • Errekako hondakinen garbiketa egin da auzolanean. | | • Urtero egiten da erreka garbitzeko eguna, baina ez da lortzen behar besteko partaidetzarik |
| Zabor bilketa | • Zabor bilketa sistema aldatu da<br>• Autokonposta eta auzokonposta martxan daude, eta dagoeneko 280 familiek erabiltzen dute.<br>• Herrian eta udal eraikinetan hondakinak gaika jasotzeko zakarrontziak jarri dira.<br>• Puntu-berde mugikorra berriro jarri da. | • Auzokonpost gune berriak jartzeko proiektua egite bidean da; helburua, 2014. urtea bukatu aurretik 2 gune berri gehitzea (beste 40 familientzako) | • Zabor bilketa sistema berria %100ean ezartezko, lan tekniko batzuk egitea falta da |
| Herritarren kontzientziazioa | • Tupperrak erabiltzeko kanpainak egin dira. | • Txakur-kakaren inguruko kanpaina ez da oraindik egin, baina prestaketa fasean dago. | • Katuekin, herriko plazako zaborrekin, aparkatzeko ohiturekin… ditugun arazoak herritarrekin landu beharra dago. |